

Nor da nor?



Juan Sebastian Elkano

VICTORIA ONTZIKO KAPITAINA ETA
ESPEDIZIOBURUA MAGALLAES HIL
ONDOREN

Historian izan zuen rola

Itsasgizon aritua zen, garai hartan Gaztelako koroaren mendean zegoen Getarian jaioa. Magallaes en espedizioan Concepción ontziko maisu gisa (kapitainaren hurrengoa) eman zuen izena. Magallaes hil ondoren, Elkanok hartu zuen espedizioaren agintea Moluketatik bueltan. Victoria ontzian Indiako Ozeanoa zeharkatu eta Afrika inguratuta, munduari bira emanda lehorreratu zen hasierako portuan, Sanlúcar de Barramedan, 1522ko irailaren 6an, bizirik heldu ziren beste hamazazpi kideekin batera..

Fernando Magallanes

ESPEDIZIOKO KOMANDANTEA ETA
TRINIDAD ONTZIKO KAPITAINA

Historian izan zuen rola

Nabigatzaile portugaldarra, Karlos I.a Espainiako erregea konbentzitu zuen Moluketarako espedizio bat finantza zezan. Espedizioaren helburua zen munduari bira ematea, Hego Amerikatik Ozeano Barerako ustezko pasabide bat bilatuta. Garai hartan, bidearen zati handi bat kartografiatu gabe zegoen. Aurre egin behar izan ziren ekaitzei, tripulazioaren altxamendu bati, klima zitalari eta pasabideko kanala bilatzeko hainbat saiakera zapuzturi. Azkenean, topatu zuen, Suaren Lurraldean barrena, eta Magallaes itsasarteari izena eman zion. Ez zuen lortu, ordea, Lurrari bira ematea, Maktango uhartean hil baitzuten (Filipinak) Lapulapu buruzagiaren esanetan zeuden indigenek.



Gaspar de Quesada

CONCEPCIÓN ONTZIKO KAPITAINA

Historian izan zuen rola

Jaéngo Erresuman jaio zen XV. mendearen hasieran. 1519ko apirilaren 6an, Karlos I.ak Concepción ontziko kapitain izendatu zuen. Puerto San Juliánen Magallaesen aurkako altxamenduko buruetako bat izan zen, baina porrot egin zuen, eta 1520ko apirilaren 7an bere morroiak exekutatu zuen, nagusia bezala akabatu ez zezaten.



Juan Rodríguez Serrano

SANTIAGO ONTZIKO KAPITAINA

Historian izan zuen rola

Frenegal de la Sierrakoa zen, Sevillako Erresumakoa (egun, Badajoz). Santiago ontziko kapitaina izan zen, eta Fernando Magallaes hil zenean espedizioko buru egin zuten, Duarte Barbosarekin batera; dena den, hiru egun bakarrik iraun zion karguak, segada batean hil baitzen. Bost ontzietako kapitainetatik, bera bakarrik zen kapitaina eta pilotua aldi berean.



Luis de Mendoza

VICTORIA ONTZIKO KAPITAINA

Historian izan zuen rola

Granadan jaioa, espedizioko diruzain nagusia zen, eta Victoria ontziko kapitaina. Magallaesen aurka altxatu zen bera ere, ez zielako jaramonik egiten eta ez zielako jarraitubeharreko noranzkoa jakinarazten. Magallaesen zenbait gizonak labankadaz hil zuten ontzian, gutun bat irakurtzen ari zen bitartean.



Juan de Cartagena

SAN ANTONIO ONTZIKO KAPITAINA

Historian izan zuen rola

Espainiako itsasgizon eta esploratzaile bat izan zen, XV.-XVI. mende-bueltakoa. Oso gutxi dakigu espedizioarekin bat egin aurretik izan zuen bizitzaz. San Antonio ontziko kapitain izendatu zuten, eta ontziteriaren gainbegirale nagusia zen. Magallaesen aurkako altxamenduko burua izan zen Puerto de San Juliánen, eta hantxe abandonatu zuten, altxamenduaren porrotaren ondoren.



Antonio Pigafetta

ITZULTZAILEA ETA KARTOGRAFOA

Historian izan zuen rola

Italiakoa izatez, Vicenzakoa, zehazki, Magallaesen espedizioa dokumentatu zuen. Etxera itzultzea lortu zuten hemezortzi tripulantzaileetako bat izan zen. Supernumerario gisa ontziratu zen. Beren borondatez izena ematen zuten familia nobleetako gazteentzat zegoen gordeta postu hori. Magallaesentzat itzultzaile eta kartografo lanak egin zituen.



Humabon

CEBUKO RAJA

Historian izan zuen rola

Cebu uharteko buruzagia zen. Humabon eta haren bi alaba bataiatu egin zituzten, eta Carlos, Isabel eta Catalina izenak jaso zituzten. Inguruko uharte bateko buruzagia (Lapulapu) etsaia zuen. Humabonek espainiarrak bankete batera gonbidatu zituen, Karlos I. arentzako opari batzuk emateko aitzakiarekin, baina, egiaz, enboskada bat zen, haiek hiltzeko.



Lapulapu

MAKTANGO UHARTEKO BURUZAGIA

Historian izan zuen rola

Filipinetako Maktan uharteko buruzagia zen. 1521eko apirilaren 27an, Magallaes, bere soldaduetako batzuekin batera, Maktan uhartean lehorreratu zen Lapulapu mendean hartzeko. “Maktango bataila” deritzon borrokan, Magallaes hil egin zuten, eta haren soldaduak garaitu, bertako gerlariak askoz gehiago ziren eta.



Almansur

TIDOREKO ERREGEA

Historian izan zuen rola

Tidoreko erregea zen, eta oso harreman ona izan zuen 1521eko azaroaren 7an Moluka uharteetara heldu ziren espainiarrekin. Hurrengo egunean porturatu ziren Tidore uhartean. Espeziekin salerosketan aritu zen Almansur, eta espainiarrekin batera merkataritza-gune bat sortu zuen. Bake eta adiskidetasun tratatu bat ere sinatu zuen Karlos I.arekin. Pigafettak astrologo bikain gisa definitu zuen.